ASMOZ TA JAKITEZ
ASMOZ TA JAKITEZ
EUSKO IKASKUNTZA

2003 abendua/diciembre/décembre
Nº 140 zenb.

# 'Ikasi Jolastuz': Heziketa eta Jolasa

## *La colección multimedia de carácter didáctico que edita Eusko Ikaskuntza presenta su tercer cd-rom, dedicado a la Edad Media en Euskal Herria*

**H**eziketak ez du zertaz jolasa alde batera utzi. Premisa hori oinarri harturik, badira bi urte Eusko Ikaskuntza, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin batera eta EIMA programaren barrenean, material didaktikoz osaturiko bilduma bat argitaratzen ari dela euskarri digitalean. "Ikasi Jolastuz", hori baita bildumaren izena, CD-Rom elkarreragileen formatuan aurkezten da eta bereziki 14-17 urte bitarteko gazteei zuzentzen zaie.

Horien edukiak -aro bakoitzean adituak diren zientzialarien zuzendaritzapean sortuak- modu dibertigarrian diseinaturik daude, halako eran non jokalaria Euskal Herriko bildumaren hirugarren alea aurkeztu du. Historiaurrearen eta Erromanizazioaren ondoren, Euskal Herriko Erdi Aroaren (V.-XV. mendeak) aldia dugu oraingoan. Jokoan garai horren alderdi nagusiak agertzen dira, hala nola










iraganeko aroei dagokien errealitate sozial, politiko eta ekonomikoaz jabetuz joango den. Ekimen hau, aitzindaria bere esparruan, harrera bikaina jasotzen ari da.

### Ikasleak eta helduak

Durangoko Euskal Disko eta Liburu Azokaren kariaz, Eusko Ikaskuntzako Euskomedia Fundazioak, multimedia hezigarri hauek diseinatzeaz eta gauzatzeaz arduratzen den erakundeak, hiribilduen sorrera, gure lurraldearen kristautzea eta eliz antolaketa, arte eta kultura agerpen nagusiak eta orduko euskaldunen eguneroko bizitza, beste hainbat gairen artean.

Aurreko emanaldietan bezala, "Ikasi Jolastuz" bildumaren 3. alea ere ikastetxeko gelan aplikatua izateko pentsatua da. Hartarako, atalen arabera antolaturiko galde-sorta batez hornituriko dago, irakasleek ikasleen jakite maila ebaluatu ahal izan dezaten; orobat, koaderno batek aukera ematen dio erabiltzaileari informazioa gordetzen joateko ataletan aurrera joan ahala.

### Geografia eta museoak

Jende helduak, halaber, kontsulta zuzeneko sistema bat aurkituko du eta horrek, egitura ludikoa eta gelan lantzekoa alde batera utzirik, datu interesgarri nagusiak eskainiko dizkio. Azkenik, multimedia honek informazioa ematen du Erdi Aroarekin zerikusia duten euskal geografiako museoez eta bestelako lekuez. Azken finean, beste bide bat gure iraganeko garai handiei buruz jolasten ikasteko.

**Versión**

Está previsto que, en un futuro próximo, los juegos educativos de la colección *Ikasi Jolastuz* se reediten en versión castellana.

**"Erdi Aroa Euskal Herrian"**
**jokoa**

**9 €**
**(%50eko beherapena)**

"**Ikasi Jolastuz Bilduma**" osoa
(Historiaurrea, Erromanizazioa, Erdi Aroa)

**3 cd-ak 25 € bakarrik**

Eskaerak:
denda@euskoshop.com

*Etxean jasotzekoa*
*Eskaintza honek urtarrilaren 7a arte edo izakinak amaitu arte balio du*

# Las Secciones científicas de Eusko Ikaskuntza, a debate entre todos los socios

**E**n el marco de la reflexión estratégica sobre el futuro de la Sociedad de Estudios Vascos puesta en marcha tras la elección hace un año de la nueva Junta Directiva presidida por Javier Retegui, son ahora las Secciones científicas las que ocupan el centro del debate.

Nacidas con la propia Sociedad en 1918 como prolongación de los grupos de trabajo del I Congreso de Estudios Vascos, fueron ocho las Secciones fundacionales de Eusko Ikaskuntza: Ciencias Sociales y Políticas, Antropología, Medicina, Lengua, Historia, Artes, Enseñanza y Estudios Vascos. Tras la dictadura, a la reanudación de la actividad en 1978, además de rebautizarse algunas de ellas se crearon otras nuevas: Ciencias Físico-Químicas y Matemáticas, Ciencias Naturales, Cinematografía, Derecho, Folklore, Medios de Comunicación, Música y Prehistoria-Arqueología.

### Comisión

En la actualidad, son quince las Secciones científicas que componen Eusko Ikaskuntza, cuya naturaleza y función están siendo sometidas a un análisis profundo y sereno.

Al abrir este debate, todos los socios han sido invitados a participar en el proceso de reflexión que será conducido por una Comisión integrada por cuatro presidentes de Secciones más la coordinadora general de las mismas, Carmen Iriondo. El desempeño de esta Comisión consistirá en elaborar una normativa mínima de funcionamiento común a todas las Secciones y estudiar si su estructura es la adecuada tanto a efectos de su funcionamiento interno como en su mutua interrelación, así como de cara a la proyección externa de Eusko Ikaskuntza y de su vocación de servicio a la sociedad vasca.

### Cuestionario a los socios

Así las cosas, los socios que manifiesten su deseo de participar en el proceso de reflexión recibirán un cuestionario en el que se les pedirá una valoración crítica sobre la actividad de la Secciones, y cuantas ideas puedan aportar de cara a su revitalización futura. Una vez recabados los cuestionarios, a partir de ellos la Comisión encargada elaborará un dictamen que será elevado a los órganos rectores de la Sociedad para un debate en profundidad.

Se prevé que el proceso que ahora se pone en marcha se prolongue a lo largo del invierno, de modo que para la primavera se disponga ya de un plan estratégico para las Secciones de Eusko Ikaskuntza.

**Sailak**

Debatean parte hartzeko asmoa daukaten bazkideek galdera sorta bat jasoko dute.

**www.eusko-ikaskuntza.org / www.euskoshop.com / www.euskonews.com**

# Manifiesto a favor de la 'Y' vasca

**TGV Basque**

La préoccupation pour ce projet, solution pour un avenir économique et social, a provoqué une déclaration publique.

El Presidente de Eusko Ikaskuntza, Javier Retegui, junto con los Presidentes de las tres Cámaras de Comercio e Industria de Euskadi, los máximos representantes de la asociaciones territoriales de empresarios y de la Confederación Empresarial Vasca, así como los Rectores de las Universidades del País Vasco, Deusto y Mondragon, firmaron el pasado 20 de noviembre una declaración pública manifestando su preocupación al constatar que el proyecto ferroviario de alta velocidad Madrid-Vitoria-Dax ha quedado excluido de la lista de infraestructuras prioritarias de la Unión Europea (“quick start list”), a pesar de reunir los cuatro criterios establecidos por la Unión Europea para merecer tal consideración.

Según se expone en el texto, "el País Vasco ha sido históricamente un lugar de paso privilegiado tanto por su situación geográfica como por la voluntad de sus habitantes". Por ello, "la marginación del País Vasco en las futuras redes de transporte europeas adquiere la gravedad de las decisiones históricas y nos traslada a un oscuro futuro". En base a esto, la declaración aprobada quiere sensibilizar a las autoridades españolas y comunitarias sobre la necesidad de que el proyecto ferroviario vasco no sea excluido y se evite la deslocalización del Arco Atlántico en la construcción de Europa.

# Remise des Prix à Baiona

**Sariak**

Jesus Echevarria eskultorea eta Natalie Morel musika historialaria saritzaturik gertatu ziren Eusko Ikaskunza-Ville de Bayonne Sarien IV. ekitaldian.

Le 21 novembre dans le grand salon de la mairie de Bayonne, en présence de Jean Grenet députémaire de la ville, eut lieu la remise des IV Prix Culture Basque Eusko Ikaskuntza-Ville de Bayonne 2003. Le Prix d'Honneur a été remis à Jesus Echevarria, sculpteur, né à Barambio (Alava), résidant à Cambo-Les-Bains, qui, selon les affirmations de Marie-Claude Berger durant la cérémonie, "a été en Iparralde, le pionnier du renouveau de la sculpture comme Chillida, Basterretxea et Oteiza l'ont été au Sud". Un *makila* d'honneur lui a été offert portant la devise : *Argiaren bila zilatut dut harria - En cherchant la lumière, j'ai ciselé la pierre*.

Le Prix Culture Basque a été attribué à Natalie Morel Borotra, originaire de Larressore, auteur de l'étude de *L'opéra basque 1884-1937*. Son ouvrage a été salué par Jean-Claude Larronde comme "l'étude la plus complète et la plus fouillée sur l'opéra basque". Le livre qui tire sa source d'une thèse de doctorat soutenue à la Sorbonne en 1992, retrace les grandes œuvres du répertoire basque, souvent liées à des événements historiques.



# Nieves Urrutia, Vicepresidenta

En Asamblea territorial celebrada el 21 de noviembre, los socios eligieron a María Nieves Urrutia Agorreta (Vitoria-Gasteiz, 1938) como nueva Vicepresidenta de Eusko Ikaskuntza por Alava.



Nieves Urrutia está vinculada al mundo de la investigación arqueológica desde los años 60, y desde entonces ha participado en un amplio número de exploraciones y excavaciones (castros de Peñas de Oro y de Henayo, pico de San Pedro, poblado de la Hoya, solacueva de Lakozmonte, dolmen de las Campas de la Choza, etc.).

Es cofundadora del Instituto Alavés de Arqueología y de la Sociedad Landazuri, y profesora de dantza en las Ikastoras Olabide y Umandi.

# Jardunaldiak - Jornadas - Journées

## Folklore Mintegia

Eusko Ikaskuntzako Folklore Sailak antolaturik, "Musika eta dantza tradizionaleei buruzko ikerketa gaurko egunean" izenburuko Mintegia egin zen azaroaren 8an, Donostiako Miramar Jauregian. Nazioarteko ospe oneko aditu bik, Ramón Pelinski (Montrealgo Unibertsitatea) eta Goffredo Plastino (Newcastleko Unibertsitatea; argazkian) irakasleek jardun zuten egungo musika ikerketaren hainbat alderdiz. Mintegia guztiz interesgarria gertatu zen bertaratu zirenentzat eta, gainera, hitz egiteko eta esperientziak trukatzeko aukera eskaini zien.



## Elikaduraren Antropologia

Nutrizioa eta haren arazoak, gorputzaren irudia, obesitatea, ariketa fisikoa, portaerak eta elikadura patroiak gure gizartean. Horiek izan ziren Antropologia, Medikuntza, Psikologia, Soziologia edo Hezkuntza alorreko hogeita hamarren bat adituk arakatu zituzten gaietariko batzuk Elikadura, Nutrizio eta Osasunaren II. Jardunaldietan. Ekitaldi horiek Bilboko Eusko Ikaskuntzaren egoitzan egin ziren joan den azaroaren 14an eta 15ean.

Jardunaldi horietan elikadura eta nutrizioari buruzko antropologia ikerketaren egungo egoera zertan den ikertu zuten diziplinarteko ikuspegitik, zenbait alderdi soziokultural eta psikologiko bereziki nabarmendu zirelarik, hala nola norberaren irudiaren pertzepzioa gizarte-joeren ikuspegitik aztertua.

(Argazkian Juan Antonio Rubio-Ardanaz, Aingeru Zabala eta Esther Rebato Jardunaldien aurkezpenean.)




# Premio Lekuona

El viernes 19 de diciembre, en Iruña, se reúne la Comisión Académica de Eusko Ikaskuntza en sesión extraordinaria a cuyas deliberaciones seguirá una Junta Permanente ordinaria.

Ese día se dará a conocer el nombre del o de la ganadora del Premio Manuel de Lekuona en su vigesimoprimera edición.

# Journées Internationales de Projectique

Des spécialistes de plusieurs pays européens prirent part les 27 et 28 novembre aux IX Journées de Projectique qui, organisées par Eusko Ikaskuntza et la Société Européenne de Projectique, se déroulèrent à Bidart et Donostia.

Au cours de ces mêmes journées il a été mis en évidence que pour être compétitif, tout projet de création, d'organisation ou de transformation doit tenir compte des principaux facteurs qui interviennent dans son efficacité: le dynamisme et l'adaptation aux réalités changeantes, l'innovation et l'apprentissage, le savoir-faire et le transfert d'information, le développement de la personne et du groupe…

La mise en marche, pour cette raison, d'un réseau international impliquant des chercheurs, universitaires et acteurs de l'entreprise concernant le projet de recherche TOPIK, projet qui mobilisa en France une vingtaine de centres de recherche (management, ingénierie industrielle, informatique, sciences cognitives…) a contribué à l'intérêt de ces Journées.

# Hiru argitalpen berri

Lankidetzan bildumak udalekin eta erakunde pribatuekin sinaturiko hitzarmenen bidez gauzatzen den jarduera bildu ohi du. Berriki mota desberdineko hiru liburuki argitaratu dira bilduma honetan.




Bildumaren 25. alea *El nacimiento del periodismo vasco. Gacetas donostiarras de los siglos XVII y XVIII* izenburukoa dugu, Javier Díaz Noci eta Mercedes del Hoyo Hurtadok idatzia. Donostiako Udalarekin lankidetzan argitaratu liburu honek lehen euskal albistariei buruzko azterlan historiko eta linguistikoa dakar, bai eta 1668-1728 bitartean Gipuzkoako inprimatzaile ofiziala izan zen Huarte familiak argitara emandakoen facsimileak ere.

Resurrección Mª de Azkueren heriotzaren berrogeita hamargarren urteurrena zela-eta, mintegi akademiko bat eskaini zitzaion bere jaioterrian. Horren txostenak argitaratzen dituzte orain Eusko Ikaskuntzak eta Lekeitioko Udalak, *Euskal kulturaren erraldoia eta funtsezko zutabea* izenburuko alean (Lankidetzan, 26 zk.).

Azkenean, *Euskal Festak Zestoan 1898* izenburukoan, 1898ko irailean Zestoan egindako Euskal Jaiak aztertzen ditu Luzia Alberro Goikoetxeak. Jai horiek 1876ko foru kentzeak eragindako kultura ondorioen testuinguruan ezartzen ditu egileak (Lankidetzan, 27 zk., Zestoako Udalarekin batera argitaratua).

# Sobre cultura digital

El número monográfico del mes de diciembre de la revista electrónica *Euskonews & Media* está dedicado a la cultura digital, y se abre con una entrevista a Borja Aginagalde, de Irargi.

Nueve colaboraciones completan la sección *Gaiak*: *Archivos sonoros, acceso on-line a bancos de audio* (Jon Bagüés), *Bases de datos accesibles en la web* (Arantza Cuesta), *Katalogoak sarean kontsultatzetik, liburutegi digitaletara* (Teresa Aguirreazaldegui), *La digitalización del patrimonio documental. Conceptos y parámetros básicos* (Euskomedia Fundazioa), *La implantación de la gestión de documentos electrónicos* (Andrés Gabiña), *Liburutegiak ingurumen digitalean* (Arantza Arzamendi), *Sistema nacional de archivos de Euskadi* (Borja Aginagalde), *XXI. mendeko agiriak* (Ramón Martín), *Los museos en el entorno digital* (Félix Ares).

# Gasteizerako Bekak

Eusko Ikaskuntza eta Gasteizko Udaleko Euskara Sailak 6.000 euroko 3 beka ematen dituzte Arabako hiriburuko kale izendegiari buruzko azterlana egiteko: kaleak hiriaren diskurtso historikoaren gertaleku gisa.



Guztiz euskaraz idatzi beharreko azterlan honek zehatza izan beharko du historiaren ikuspegitik, baina baita didaktikoa ere (azalpena argia izan eta irakasbidea gertatu beharko du), dibulgaziokoa (jende mota guztiek ulertzekoa) eta erakargarria (atsegina eta irakurtzera gonbidatuko duten ikus baliabideez hornitua).

Zortzi hilabetekoa izango da proiektua burutzeko epea, hurrengo urtarriletik aurrera. Aurkeztuko direnek Gasteizko historiaren ezaguera egokia, artxiboko ikerketan esperientzia eta Gasteizko artxibo eta liburutegi espezializatuak ongi ezagutzea egiaztatu beharko dituzte, bai eta euskara, hala ahozkoa nola idatzia, menderatu ere.

Eskariak entregatzeko epea abenduaren amaieran amaitzen da. Informazio gehiago izateko webgune hau kontsulta daiteke:

www.eusko-ikaskuntza.org.

# V Jornadas de Arte Vasco: 1875 - 1939

En 1996 la Sección de Artes Plásticas y Monumentales emprendió un ambicioso proyecto de puesta al día de los conocimientos acumulados, aunque a menudo dispersos, sobre los distintos períodos del arte en Euskal Herria. Siguiendo una secuencia cronológica, y con periodicidad bianual, se organizaron Jornadas sobre Arte Medieval (1996), Arte del Renacimiento (1998), Arte Barroco (2000), y Arte Neoclásico y Romántico (2002).

Un nuevo eslabón en este esfuerzo supone la organización de las V Jornadas de Arte: revisión del Arte Vasco entre 1875 y 1939, que se celebrarán en Donostia los días 25 al 27 de marzo de 2004. Su estructura seguirá el patrón de ediciones anteriores; a saber, seis ponencias a cargo de especialistas de reconocido prestigio que ofrecerán una visión de conjunto, acompañadas de una serie de comunicaciones para dar a conocer los nuevos trabajos de investigación que se están llevando a cabo.




**EuskoArt**

arduratuko da 1875-1939 bitartean euskal kultura lurralde guztietan sorturiko arte agerpideez.

Tanto las ponencias como las comunicaciones estarán publicadas y a disposición de los participantes al comienzo de las mismas Jornadas en un número especial de la revista *Ondare*, que además incluirá una bibliografía especializada sobre el arte de este periodo.

Asimismo, en colaboración con Donostia Kultura, se organizará un ciclo de películas relativas a la secuencia histórica 1875-1939.

# Cursos sobre Gestión de Residuos y de Agua

Durante los meses de noviembre y diciembre, la Fundación Asmoz de Eusko Ikaskuntza está gestionando dos Cursos breves presenciales (de 24 horas cada uno) dentro del área de medioambiente y desarrollo sostenible. Se trata, concretamente, del Curso sobre Gestión de Residuos y del Curso sobre Gestión del Agua.

En su metodología, los Cursos compaginan las clases lectivas con visitas técnicas guiadas y talleres donde se analizan la gestión de residuos y del agua desde una triple perspectiva: jurídico-administrativa, de gestión y técnica.

La participación en esta primera edición ha sido muy satisfactoria tanto por el número como por la condición del alumnado (cargos públicos, técnicos municipales, profesionales y titulados en Derecho, Biología, Ingeniería, Geología, Empresariales y otras).

## Agenda

**Diciembre / Abendua / Décembre**

4-8: Durango. Feria del Libro y del Disco Vasco

10-12: Gasteiz. 20 años de Historiografía vasca: Revista Vasconia

19: Iruñea. Comisión académica y Junta Permanente

29-30: Hernani. Jornada Kardaberaz

Finales: Fin de admisión de opciones a las Becas para Gasteiz.

**Marzo / Martxoa / Mars**

25-27: Donostia. V Jornadas de Revisión del Arte Vasco: 1875-1939

http://www.eusko-ikaskuntza.org/

# Hezkuntza Sailak gizartearen beharrei lotutako gaiak bultzatuko ditu

Hezkuntza Saileko azken bileran, bazkideek nik aurkeztutako egitasmoa onartu eta lehendakaritza berrirako hautatu ninduten.



**Ines García Azkoaga**

*Hezkuntza Saileko Lehendakaria*

Niretzat hastera doan aro berri honetan ez nuke alde batera utzi nahi orain arte egin dena; izan ere, ezin dugu bukatutzat eman azken urteotan horrenbeste ahaleginekin egin dena. Horregatik, aurreko lehendakariaren ardura pean hasitako proiektuekin jarraitu, eta era berean, ekimen berriak sustatu nahi nituzke. Ondorioz, hiru izango dira sailaren ardatz nagusiak.

Alde batetik, Euskal Museoaren proiektua. Hori da, zalantzarik gabe, azken urteotan Eusko Ikaskuntzako Hezkuntza sailak bultzatu duen proiekturik handiena eta garrantzitsuena. Hainbat bazkideren lan eta ilusioari esker, dagoeneko, material eta informazio ugari bildu da eta bidearen zati bat egina dago, baina oraindik gehiago ere egin daiteke.

Horrelako museo batek, beste lan batzuekin batera, Euskal Hezkuntzaren historia badugula, eta hura nolakoa izan den ezagutzeko aukera ezin hobea eskain diezaioke herriari. Horretarako, jakina, lanean jarraitu behar da; horregatik, aurrerantzean ere, orain arte egindako lana ezagutarazi eta etorkizunerako zutabe sendoak finkatzeko lanarekin jarraitu behar dugu.

Bestalde, hezkuntzan, beste arlo zientifiko batzuetan gertatzen den bezala, etengabeko eguneratzea behar da gizarteak dituen premia berriei modu egokian erantzun ahal izateko. Eskola munduan ari diren profesional eta adituen arteko elkarlanak ekarpen handia egin diezaioke gure hezkuntzari; horregatik, garrantzitsua deritzot, orain arte egin den bezala, ikasmaila guztietako hezkuntza eta didaktika arloko ikerlan aplikatuak bultzatzea, baita unibertsitatekoak ere: hizkuntzen didaktika, euskal curriculuma, kalitatea, gelako ikerketa, aniztasunaren tratamendua... Nahi izanez gero, eremu zabala dago lan egiteko.

Horretaz gain, ezin dugu ahaztu hezkuntzarekin hain estu lotuta dagoen beste errealitate bat. Gero eta ugariagoa da arrazoi ezberdinengatik leku batetik bestera mugitzen ari den jendea, kultura batetik bestera, hizkuntza batetik bestera, batzuetan aldi baterako, betiko geratzeko asmoarekin beste batzuetan. Ondorioz, gero eta gehiago dira eguneroko elkarbizitzan topo egiten duten hizkuntzak eta kulturak.

> **«Multiculturalismo y multilingüismo: dos grandes retos para la educación del futuro»**

Mugimendu horiek gizarte osoari eragiten diote, eta are gehiago eskolari. Beraz, gertatzen ari diren aldaketak kontuan hartu, eta egoera berriari erantzuteko prestaturik egon behar du hezkuntza munduak. Gainera, hizkuntzen tratamenduari dagokionez, ezin dugu ahaztu zein den euskararen egoera eta inguruko hizkuntza handien artean duen lekua. Egoera honek arreta eta ahalegin berezia eskatzen du: prestakuntza, ekimen berritzaileak... Horregatik, eguneroko zeregin horretan irakaskuntzari ekarpena egin diezaioketen esperientziak eta ikerlanak bultzatu behar direla uste dut.

Nolanahi ere, zabalik ditugu ateak gure gizartearentzat onuragarriak izan daitezkeen beste proposamen batzuk ere aztertzeko.

Ikusten den bezala, zeregina badago, eta horretarako prest dagoenak laguntza aurkituko du gure sailean. Horregatik, bazkideei dei egin nahi diet gure bileretan parte har dezaten. Era berean, horrelako proiektuetan interesa dutenek eta oraindik bazkide ez direnek, izena eman eta etorri besterik ez dute. Guk pozik hartuko ditugu.

# Urte berri on!




*Eusko Ikaskuntzak 2004 urte emankorra eta kultura aldetik guztiz onuragarria opa die bazkide, laguntzaile eta lagun guztiei. Gure Elkartearen irudi den Jakintzaren Zuhaitzetik abar ugari eta mardulak sortuko ahal dira 2004an ere, Euskal Herria deritzan munduko txoko txiki honetan bizi garen emakume eta gizonen onetan. Bakea eta Zoriona! Izan ezazue 2004 zoriontsua!*

## LIBURUAK

**Reingeniería y cambio organizativo. Teoría y práctica**

OLAZABAL, Mikel; ALBIZU, Eneka
Financial Times-Prentice Hall: 2003




En este libro se reflexiona sobre el concepto de reingeniería y/o relaciones con otras herramientas de gestión de empresas según los aspectos organizativos de la misma. En su parte central, los autores analizan la implantación de la reingeniería en España en tres empresas de ámbitos y objetivos dispares para informar sobre la validez de este proceso, cuáles han sido los cambios que han experimentado las empresas y los resultados obtenidos. Al final se exponen unas conclusiones generales y algunas recomendaciones derivadas del estudio de casos. El libro está concebido desde la perspectiva que ofrece el mundo empresarial actual e incluye las últimas aportaciones a la reingeniería en Europa, con exposición de casos concretos y fuerte componente práctica.

**Bisoi europarra (Mustela lutreola, L.), mundutik desagertzeko arriskuan dagoen karniboroa goierrin**

IRIZAR, I. et al.
Lazkao: 2003



X. Gerriko ikerlan bekaren emaitza kontserbazio-biologiaren arloko dibulgazio-liburua da. Biodibertsitatea galtzearen kasu partikular bat ezagutzera ematen du, gertu-gertukoa: Gipuzkoan aurkitutako Bisoi europarraren populazio nagusiarena. Munduan galzorian dagoen karniboroa Goierrin ikertzen egindako lanak eta hauetan oinarritutako kontserbazio-proposamenak dira liburuaren ardatza. Ikerketa bere testuinguru egokian kokatzeko eta gaia ulergarri bihurtzeko hainbat informazioekin osatu da liburua, izaera zientifikoa galdu gabe dibulgazioaren arlokoa bilakatuz. Erraz jarraitzeko modukoa, biodibertsitatearen kontserbazioaren errealitatea gaur eta hemen zein den era ulergarrian erakusten du.

Argitaratzailea: Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia, Miraconcha, 48. 20007 DONOSTIA. Zuzendaria: Josemari Velez de Mendizabal. - L.G.: SS-1056/92. ISSN 1133-9861. Inprimategia: Juaristi. Itziar
Harpidetzak: Asmoz ta jakitez etxean jaso nahi baldin baduzu, idatzi edo dei egin ezazu helbide hauetara:
Eusko Ikaskuntzako Bulego Nagusiak: Miramar Jauregia, Miraconcha, 48. 20007 DONOSTIA. Tel. 943-310855. Fax 943-213956. E-mail: ei-sev@sk.ehu.es. Arabako Bulegoa: San Antonio, 41. 01005 GASTEIZ. Tel. 945-231552. Fax 945-148752. E-mail: eusko@infonegocio.com. Bizkaiko Bulegoa: María Díaz de Haro, 11-1. 48013 BILBAO. Tel. 94-4425287. Fax 94-4414650. E-mail: eibilbo@infonegocio.com. Nafarroako Bulegoa: Pl. del Castillo, 43 bis, 3. D. 31001 IRUÑEA. Tel. 948-222105. Fax 948-211737. E-mail: gaztelu@infonegocio.com. Iparraldeko Bulegoa: 51 quai Jauréguiberry. 64100 BAIONA. Tel. 559598290. Fax 559461844. E-mail: eusko-ikaskuntza1@wanadoo.fr